

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK. 2019KO MARTXOA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %10,3 gutxitu ziren 2019ko martxoan

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera harturik, %3,1eko gehikuntza izan da sarreretan martxoan

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak 2019ko martxoan 20.613 izan ziren, 2018ko martxoaren aldean %10,3ko jaitsiera dena. **Baloratzeko orduan 2019ko martxoko datu horiek guztiak, hartu behar da gogoan aurten Aste Santua apirilean izan dela eta iaz martxoan.**

Gualdiek behera egin dute Gipuzkoan %28 eta Araban %8,8, baina Bizkaian gora egin dute %5,9.

2019ko martxoan 6.085 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan, %6,0ko gehikuntza. Bidaiari-sarrerak %29,9 gehitu dira Bizkaian, baina Gipuzkoan %2,7 jaitsi dira eta Araban %28,7.

Gualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeko apartamentu turistikoetan. 2019ko Martxoa

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2019/03	m/m-12 (%)	2019/03	m/m-12 (%)	2019/03	2018/03
EUSKAL AE	20.613	-10,3	6.085	6,0	3,39	4,00
Estatukoak	14.556	-19,9	4.557	2,3	3,19	4,08
Atzeritarrak	6.057	25,8	1.528	18,8	3,96	3,74
ARABA/ÁLAVA	7.009	-8,8	800	-28,7	8,76	6,85
Estatukoak	4.918	-28,0	727	-31,5	6,76	6,44
Atzeritarrak	2.091	146,5	73	21,1	28,76	14,14
BIZKAIA	8.068	5,9	3.144	29,9	2,57	3,15
Estatukoak	5.733	-5,8	2.347	20,7	2,44	3,13
Atzeritarrak	2.335	52,5	797	67,4	2,93	3,22
GIPUZKOA	5.535	-28,0	2.141	-2,7	2,59	3,49
Estatukoak	3.905	-25,6	1.483	2,2	2,63	3,62
Atzeritarrak	1.631	-33,1	658	-12,3	2,48	3,25

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia, martxoan, 3,39 egunekoa izan da, 2018ko martxoan 4,00 zelarik. Araban iazko 6,85 egunetik aurtengo martxoko 8,76ra luzatu da; Bizkaian 3,15etik 2,57ra laburtu da; Gipuzkoan 3,49tik 2,59ra laburtu da.

2019 martxoko turista-balantzea

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 255.529 sarrera erregistratu dira 2019ko martxoan, %3,1eko gehikuntza dena aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien %47 kontzentratzen dira, eta sarreraren batura %6,0 gehitu da. Gipuzkoan erkidegoko sarreraren %40,1 daude, %3,4ko gehikuntzarekin. Arabak Euskal AEko sarreraren %12,9 ditu, eta %6,6 jaitsi dira.

Gaualdiak, establezimendu turistiko hartzaileen orotarakoan, %1,5 egin dute behera. Gipuzkoan eta Araban %3,1 eta %2,2 egin dute behera gaualdiak, hurrenez hurren, baina Bizkaian %0,2 egin dute gora.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2019ko Martxoa

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2019/03	m/m-12 (%)	2019/03	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	483.890	-1,5	255.529	3,1
Araba/Álava	68.495	-2,2	33.056	-6,6
Bizkaia	225.996	0,2	120.119	6,0
Gipuzkoa	189.398	-3,1	102.354	3,4

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62